

<b>COVID-19REN EGOERAREKIN LOTUTAKO TRATAMENDUEN KUDEAKETA</b>	
<b>DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA</b>	
<b>Arduraduna</b>	<p><b>Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz?</b></p> <p>EJIE SA  IFK: A01022664  Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba  Telefonoa: 945 017 300  Helbide elektronikoa: <a href="mailto:ejie@ejie.eus">ejie@ejie.eus</a>  Datuak Babesteko Ordezkariekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: <a href="mailto:dpd@ejie.eus">dpd@ejie.eus</a></p>
<b>Helburua</b>	<p><b>Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?</b></p> <p>COVID-19ren ikerketa-kasuak: EJI Eren enpresa hornitzaileetan lan egiten duten langileen eta enplegatuen artean koronabirusaren hedapena prebenitzea edo geldiaraztea (Covid-19).</p> <p>10/2020 Errege Dekretuarekin bat datorren erantzukizunpeko adierazpenaren ereduak: FFCCSSek beren lanpostura joan behar duten langileen identifikazioa erraztea.</p> <p>Gorputzeko tenperaturaren kontrola:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonari EJI Eren instalazioetara sartzen uztea edo ukatzea, COVID-19 kutsatzea prebenitzeko neurri gisa, lantoki honetan dauden pertsonen osasuna eta bizitza babesteko.</li> <li>- Pandemiari eusten laguntzea.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.</li> <li>- Egiaztatzea langileek eta bisita posibleek sukarrak gabe lantokira joateko betebeharrak betetzen dutela.</li> </ul>
<b>Legitimizazioa</b>	<p><b>Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea?</b></p> <p>Honako lege hauetan oinarri hartuta tratatu ditugu zure datuak:</p> <p>Temperaturaren ikerketa eta kontrol kasuak: DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko beharrezko tratamendua, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera</p> <p>DBEO: 9.2.b) Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunak edo interesdunak lan-zuzenbidearen eta gizarte-segurtasun eta -babesaren arloan dituen betebeharrak betetzeko eta eskubide espezifikoak baliatzeko, estatu kideetako zuzenbideak edo estatu kideetako</p>

	<p>zuzenbidearen arabera hitzarmen kolektibo batek hala baimentzen duen neurrian, betiere oinarizko eskubideak eta interesak errespetatzeko berme egokiak ezartzen baditu.</p> <p>Erantzukizunpeko adierazpenaren eredia: 6.1.c) Tratamenduaren erantzuleari aplikatu beharreko legeko betebeharrak betetzeko beharrezko tratamendua, martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera</p>
<b>Hartzaileak</b>	<p><b>Zein hartzailei jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu pertsonalak kudeatzeko ez da beharrezkoa hirugarrenei lagatzea, baimena ematea edo legeko betebeharrak betetzea izan ezik. COVID-19ren ikerketa-kasuetan, osasun-agintaritzak eskudunek eskatuta, datuak jakinarazi ahal izango zaizkie ukituak kontaktua izan duen pertsonen, haren segurtasuna eta osasuna bermatzeko.</li> </ul>
<b>Datuak gordetzea</b>	<p><b>Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Helburu informatua betetzeko behar den denboran baino ez dira gordeko, tratamenduari aplikatu beharreko araudi espezifikoaren arabera.</li> <li>• Gorputzeko tenperaturaren kontrolari buruzko datuak ez dira gordetzen, ez direlako erregistratzen edo grabatzen; zuzenean baino ez dira bistaratzen.</li> </ul>
<b>Eskubideak</b>	<p><b>Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Edozein pertsonak dauka eskubidea ziur jakiteko ea EJE SA berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari den.</li> <li>• Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala badagokio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko, besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako.</li> <li>• Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero, erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu.</li> <li>• Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arrazoen ondorioz, interesdunek aukeran izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi adierazteko. Hala eginez gero, EJE S.A.-k datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legeko arrazoiak ez badaude edo erreklamazioak gauzatu edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Interesdunek EJE SAri eman dizkioten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJE SAtik beste erakunde batera bidaltzeko.</li> <li>• Eskubideak gauzatzeko, mezua bidali beharko dute <a href="mailto:lopd-ejie@ejie.eus">lopd-ejie@ejie.eus</a> honako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri baliokideren bat ere gehituta.</li> </ul> <p>Gainera, eskubideak behar bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik bat, <a href="http://www.aepd.es">www.aepd.es</a> orrialdean adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan.</p>
<b>SEGURTASUNA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datuak konfidentziasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezen aldatu, galdu edo beste nolabait tratatu eta inork ez ditzan baimenik gabe eskuratu.</li> </ul>